Bizkaiko Merkataritzako | Confederación Empresarial
Enpresari Konfederazioa | de Comercio de Bizkaia

kide anitzeko organoentzat xedatutakoa aplikatuko da.

Colegiados en la Ley vigente en materia de procedimiento administrativo común.

5. APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen araubide juridikoaren mende geratuko da, 47.12 artikuluan jasotako administrazio-hitzarmenaren figuraren bidez eta 144/2017 Dekretuaren Atariko VI. kapituluan eta XIII. kapituluan jasotako aurreikuspenei lotuta.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan jasotako laguntzen eta diru-laguntzen araubide juridikoaren eraginpean geratuko da, baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoaren eraginpean ere.

Hauen mende ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarrizko arauak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren

5. RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE

Quedará sometido al régimen jurídico de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Publico (LRJSP), a través de la figura del Convenio Administrativo previsto en el artículo 47.12, así como sujeto a las previsiones contenidas en Capítulo VI Preliminar y en el Capítulo XIII del Decreto 144/2017.

Al régimen jurídico de ayudas y subvenciones previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco (TRPOHGPV), y a lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Así como a las normas básicas de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS), el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Euskadiko Aurrekontu Orokorren betearazpena eta kontrola arautzen dituzten xedapenak eta Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea ere, prozeduraren arloan.

38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, las disposiciones dedicadas a regular la ejecución de los Presupuestos Generales de Euskadi y su control y en materia de procedimiento la Ley 39/2015, de 1 de octubre de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

6. HELBURU BERERAKO BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA EDO BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Hitzarmen honen esparruan emandako dirulaguntza bateragarria izango da erakunde honek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eman ditzaketen beste dirulaguntza batzuekin, betiere ez bada gainfinantzaketarik gertatzen hitzarmenaren xede diren jardueren kostuaren gainean.

Hitzarmen honen babesean emandako ekarpen ekonomikoen zenbatekoak, helburu bera duten beste diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du inola ere gainditu garatu beharreko jardueraren kostua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.3 artikuluak dioenez.

6. COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES, AYUDAS, INGRESOS O RECURSOS PARA LA MISMA FINALIDAD

La aportación económica recibida en el marco del presente convenio será compatible con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por ésta u otras instituciones públicas o privadas, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación del coste de las actividades objeto del convenio.

En ningún caso el importe de las aportaciones económicas concedidas al amparo del presente convenio, en concurrencia con otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá superar el coste de la actividad a desarrollar, tal y como se indica en el artículo 19.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

CECOBI, 23/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

Kasu horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak emandako laguntzari soberakina kenduko zaio.

En tal caso, se minorará la ayuda concedida por el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo en la cantidad correspondiente al exceso.

7. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Ordainketa hiru zatitan egingo da, honela:

a) Lehenengo ordainketa, dirulaguntzaren % 80a, 180.000,00 euroko mugarekin, hitzarmen hau sinatu ondoren, eta ekintza-plana onartu ondoren (gauzatze-egutegia eta horrek dakartzan gastuen aurrekontua barne).

b) Bigarren ordainketa, 2021eko ekitaldirako aurrekontuan sartutako gainerako zenbatekoa, urteko lehen seihilekoaren gauzatze-memoria aurkeztu eta Jarraipen Batzordeak onartu ondoren.

c) Hirugarren ordainketa, emandako dirulaguntzaren gainerako % 20a, gastuen likidazio-memoria onartu eta 2021eko ekitaldian egindako jarduketak justifikatu ondoren, hitzarmen honen 9. klausulan xedatutakoaren arabera.

7. ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono se efectuará en tres pagos con arreglo a los siguientes términos:

a) El primero, por un 80% de la subvención hasta un máximo de 180.000,00 euros, tras la firma del presente convenio, y tras la aceptación del plan de acción con calendario de ejecución y presupuesto de los gastos que comporta.

b) El segundo, por el importe restante presupuestado para el ejercicio 2021, una vez presentada la memoria de ejecución del primer semestre del año y aprobada por la Comisión de Seguimiento.

c) El tercero, por el 20% del importe de la subvención concedida, tras la aprobación de la memoria de liquidación de los gastos y la justificación de las actuaciones realizadas en el ejercicio 2021, según lo dispuesto en la cláusula 9 del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

presente convenio.

8. HITZARMENA GAUZATZEA ETA HAREN INDARRALDIA

Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak (CECOBI), lankidetza-hitzarmen honen xedea lortzeko, I. eranskinean azaldutako lan-programa gauzatuko du, beren eginkizunak eta eskumenak erabiliz, eta II. eranskineanjasoko den aurrekontu xehatuaren arabera.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak, alderdietako batek berariaz salatzen ez badu.

Hitzarmena urtez urte luzatu ahal izango da, alderdiek hala nahi izanez gero, 2024ko abenduaren 31ra arte, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan eta hitzarmen honetako alderdiek dagokion gehigarria sinatzen badute.

8. EJECUCIÓN Y VIGENCIA DEL CONVENIO

Para la consecución del objeto del presente Convenio de Colaboración, la Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia (CECOBI) llevará a cabo, en el ejercicio de sus funciones y competencias propias, el programa de trabajo aprobado que se describe en el Anexo I, según el presupuesto detallado que formará parte del Anexo II.

El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma, y surtirá efectos desde el 1 de enero de 2021 hasta el 31 de diciembre de 2021, salvo denuncia expresa por cualquiera de las partes.

El Convenio se podrá prorrogar por periodos anuales, por voluntad expresa de las partes, hasta el 31 de diciembre de 2024, siempre que exista crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se suscriba la oportuna Adenda entre las partes de este Convenio.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

9. JASOTAKO DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

Dirulaguntza justifikatu egin behar da 2022ko martxoaren 31 baino lehen, Merkataritza Zuzendaritzaren aurrean. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko da webgune honetan: https://www.euskadi.eus/nire-karpeta

a) Memoria bat, dirulaguntza ematean ezarri ziren baldintzak bete izana justifikatzen duena, egindako jarduketa eta lortutako emaitzak zehaztuta (pertsonei dagozkien datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira).

b) Memoria ekonomiko laburtu bat, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena. Honako hauek jasoko ditu:

- Diruz lagundutako jarduerak egitean izandako gastuen egoera-orri adierazgarriaren laburpena, behar bezala taldekatuta I. eranskinean jasotako jardueren arabera, eta hasieran aurrekontuan sartutako zenbatekoak zehaztuta, zeharkako gastuak eta gainerako

9. PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN PERCIBIDA

La subvención se justificará antes del 31 de marzo de 2022, ante la Dirección de Comercio, mediante la aportación a través del sitio web https://www.euskadi.eus/micarpeta/ de la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de la actividad realizada y de los resultados obtenidos (los datos referidos a personas deberán estar desagregados por sexo).

b) Una memoria económica abreviada del coste de la actividad realizada que contendrá:

- Un resumen del estado representativo de los gastos incurridos en la realización de las actividades subvencionadas, debidamente agrupados según las actuaciones recogidas en el Anexo I, y especificando las cantidades inicialmente

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

gastuak bereizita justifikazioko eranskinaren arabera, bai eta izandako desbideratzeak ere.

presupuestadas, diferenciando los gastos indirectos del resto de gastos realizados según el Anexo de justificación y las desviaciones acaecidas.

- Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatutako kontu-auditore baten txostena, diruz lagundutako eta aurreko laburpenean adierazitako jarduketei dagozkien gastuak egiazkoak direla egiaztatzen duena.

  Onuraduna behartuta baldin badago bere urteko kontuak ikuskatzera Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legearen mendeko auditore baten bidez, auditore berak berrikusiko du justifikazio-kontua. Onuraduna ez badago behartuta bere urteko kontuak ikuskatzera, onuradunak berak izendatuko du kontu-auditorea.

- Un informe de un auditor de cuentas inscrito como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, en el que certifique la veracidad de los gastos realizados correspondientes a las actuaciones subvencionadas y reflejados en el resumen anterior.

  En el caso en que el beneficiario esté obligado a auditar sus cuentas anuales por un auditor sometido a la Ley 22/2015, de 20 de julio, de Auditoría de Cuentas, la revisión de la cuenta justificativa se llevará a cabo por el mismo auditor. En el supuesto en que el beneficiario no esté obligado a auditar sus cuentas anuales, la designación del auditor de cuentas será realizada por el beneficiario.

Proiektuaren kontu-ikuskaritzaren txostena entregatzeak ez du salbuesten gastu- eta ordainketa-dokumentuak aurkeztetik.

La entrega de informe de la auditoría de cuentas del proyecto no exime de la presentación de los documentos de gasto y pago.

CECOBI, 27/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

- Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioko (CECOBI) langileek hitzarmen honen baitan jasotako jardueretan parte hartu dutela egiaztatzen duen agiria. Taldeko langile bakoitzak proiektu bakoitzean hilean emandako ordu kopurua zehaztuko du ziurtagiri horrek, eta parte hartzen duen langile guztiek sinatu beharko dute, V. eranskinaren arabera.

- Un certificado donde se acredite la participación del personal propio de la Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia (CECOBI) en las actividades desarrolladas para el presente convenio. Dicho certificado contendrá el número de horas mensuales dedicadas a cada proyecto por cada empleado propio y deberá estar firmado por cada uno de los trabajadores intervinientes según Anexo V.

- Erantzukizunpeko adierazpen bat, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuei buruzkoa, VI. eranskinaren arabera. Zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira.

- Declaración responsable de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado las actuaciones subvencionadas con indicación del importe y su procedencia según Anexo VI.

- Proiektuari BEZa egozten bazaio, VII. eranskina aurkeztu beharko da: BEZaren salbuespen-ziurtagiria, lege-ordezkariak sinatuta.

- En caso de imputarse IVA al proyecto deberá presentarse el Anexo VII: *Certificado de exención de IVA*, firmado por el representante legal.

- Zabalkundea behar bezala egin dela frogatzeko, erakunde onuradunak hau erantsiko dio justifikazioari: hitzarmen honetako jarduerak direla medio sortzen den liburu, txosten, liburuxka, kartel edo beste

- Para la justificación de la correcta difusión, la entidad beneficiaria adjuntará en la justificación, un ejemplar de cada uno de los libros, informes, folletos, carteles u otro tipo de documentación, o

CECOBI, 28/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

mota bateko dokumentazio bakoitzaren ale bat edo horien kopia bat, euskarri fisikoan edo magnetikoan (betiere bakoitzaren izaeraren arabera, edo bataren edo bestearen egokitasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera).

bien copia en soporte físico o magnético, en función de la naturaleza del mismo, o de la mayor o menor idoneidad de uno u otro, que se generen en relación con las actuaciones del presente Convenio.

10. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

10 GASTOS SUBVENCIONABLES

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzen dira honako hauek: diruz lagundutako jardueraren izaerari inongo zalantzarik gabe erantzuten diotenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta hitzarmen honen 8. klausulan zehaztutako epean egiten badira.

1. Se consideran gastos subvencionables, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en la cláusula 8 del presente convenio.

Hitzarmen honen ondorioetarako, egindako gastutzat joko dira 9. klausulan xedatutako justifikazio-epea amaitu aurretik benetan ordaindu diren guztiak.

A los efectos previstos en el presente convenio, se considerará gasto realizado el que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación señalado en la cláusula 9.

2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izan daitezke:

2. Los gastos subvencionables podrán ser:

a) Proiektuen gastuak, hau da, diruz lagundutako jarduera edo programen

a) Gastos de proyectos, considerándose como tales

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

garapenetik berariaz eratorritakoak. Proiektuari atxikitako langileen dedikazioak V. eranskinean jasoko dira.

aquellos derivados específicamente del desarrollo de las actividades o programas subvencionados. Las dedicaciones del personal imputados al proyecto se recogerán en el Anexo V.

b) Egitura-gastuak: diruz lagundutako jarduera zehatzari zuzenean egotzi ezin zaizkion arren, federazioak jarduera hori gauzatu ahal izateko beharrezkoak direnak.

b) Gastos de estructura, aquellos que, sin ser directamente imputables a la actividad concreta subvencionada, sean necesarios para que la Federación pueda llevarlos a cabo.

Ezingo da erabili hitzarmen honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako laguntza osoaren % 50 baino gehiago Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren (CECOBI) egitura-gastuak ordaintzeko.

No se podrá destinar más del 50% del importe de la ayuda total concedida por la Administración General del País Vasco mediante este convenio, a sufragar los gastos de estructura de la Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia (CECOBI) imputados a la actividad convenida.

Aurrekoaren ondorioz, egitura-gastutzat hartuko dira honako hauek:

En virtud de lo anterior, serán considerados gastos de estructura los siguientes:

- Hitzarmen honetan jasotzen den Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioaren (CECOBI) jarduerari eusteko behar diren

- Gastos del personal requerido para el mantenimiento de la actividad de la Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia (CECOBI) contemplada en

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

langileen gastuak (III. eranskina, C apartatua)	este convenio (Anexo III, apartado C)
• Proiektua egitean erabilitako zerbitzu profesional independenteen kostuak: auditoretza, aholkularitza, zerbitzu informatikoak eta kudeaketa laborala, fiskala edo administratiboa. Elkartekideentzat egindako zerbitzuak kanpoan geratzen dira.	• Costes de servicios profesionales independientes ocasionados con motivo de la realización del proyecto: auditoría, asesoría, servicios informáticos, o gestión laboral fiscal o administrativa. Se excluyen los servicios realizados para los asociados.
• Egoitzaren funtzionamendu- edo egitura-gastuak: egoitzaren bulegoaren alokairua, beharrezkoa izanez gero, eta hornidurak (argia, ura eta gasa, etab.).	• Gastos de funcionamiento o estructura de la sede: alquiler de oficina de la sede si ello fuera necesario, suministros (luz, agua y gas, etc.).
• Bulegoko materialaren gastuak.	• Gastos de material de oficina.
• Fakturetan jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zergari (BEZ) dagokion gastua, betiere erakunde onuradunak berreskuratu ezin badu. Kasu horretan, VII. eranskina aurkeztu beharko da: *BEZaren salbuespen-ziurtagiria*, zerga hori berreskuratu ezin dela edo partzialki berreskuratu ahal dela egiaztatzen duten honako agiri hauetakoren batekin batera:	• El gasto relativo al Impuesto de Valor Añadido (IVA) repercutido en las facturas, siempre y cuando no sea recuperable por la entidad beneficiaria, En tal caso, se deberá aportar el documento Anexo VII: *Certificado de exención de IVA* junto con alguno de los siguientes documentos justificativos de la no recuperabilidad de este impuesto o de su recuperabilidad parcial:

CECOBI, 31/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

1. Salbuespen-ziurtagiri eguneratua, dagokion foru-aldundiak emana.

1. Certificado de exención actualizado emitido la Diputación Foral correspondiente.

2. Errolda-egoeraren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan BEZa betebehar gisa agertzen ez bada, BEZaren % 100 egotzi ahal izango da.

2. Certificado de situación censal. Si en este el IVA no aparece como una obligación, se podrá imputar el 100% del IVA.

3. Errolda-egoeraren ziurtagiria. BEZa betebehar gisa agertzen bada, amaitutako azken ekitaldiko BEZaren urteko aitorpena aurkeztu beharko da (390 EREDUA).

Erakundeak proiektuari lotuta ez dauden gastuetarako bakarrik aitortzen badu BEZa (390 eredua) —alegia, proiektuaren gastuen BEZa ezin bada berreskuratu—, BEZaren hiru hileroko aitorpenak bidali beharko ditu (303 eredua), bai eta azalpen bat ere, justifikatzeko gastu horiek ez direla sartzen aitorpena egitea dagokien jardueren artean.

3. Certificado de situación censal. Si la presentación del IVA aparece como una obligación, será necesario aportar la declaración anual de IVA (MODELO 390) del último ejercicio finalizado.
En el caso de que la entidad declare IVA (modelo 390) únicamente para gastos no vinculados al proyecto (es decir el IVA de los gastos del proyecto no son recuperables), deberá remitir las declaraciones trimestrales de IVA (modelo 303) y una explicación donde se justifique que estos gastos no están entre las actividades para las que se realiza dicha declaración.

4. Hainbanatzearen mende egonez gero, amaitutako

4 En caso de estar sujeto a prorrata, se aportará la

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

azken ekitaldiko BEZaren urteko aitorpena (390 EREDUA) aurkeztuko da. Adibidez: 390 ereduan BEZa aitortzeko erabiltzen den hainbanaketa % 60koa bada, gainerako % 40a egotzi ahal izango da (ez baita deklaratzen).

5 Erakunde onuradunak eta bere bazkideek BEZari dagokionez zein egoeratan dauden argitzeko helburua duen beste edozein agiri.

declaración anual de IVA (MODELO 390) del último ejercicio finalizado. Ejemplo: Si en el Modelo 390 la prorrata con la que se declara IVA es de un 60%, se podrá imputar el 40% restante (ya que este no es declarado).

5 Cualquier documentación adicional que tenga por objeto aclarar la situación de la entidad beneficiaria y de sus socios respecto al IVA.

3. Honako hauek ez dira hartuko diruz laguntzeko moduko gastutzat:

- Protokolozko arreta-gastuak, hala nola bazkariak, harrerak, opariak, loreak, ikuskizunetarako sarrerak edo antzekoak.

- Hitzarmen honen kudeaketarekin eta garapenarekin zerikusirik ez duten mantenu- eta bidaia-gastuak.

- Onartutako proiektuarekin lotura duen edo ez duen edozein gastu, proiektua gauzatzeko epetik kanpo egindakoa edo justifikazioa

3 No se considerarán gastos subvencionables los siguientes:

- Los gastos de atenciones protocolarias, tales como almuerzos, recepciones, obsequios, flores, entradas a espectáculos o similares.

- Gastos de manutención y desplazamiento ajenos a la gestión y desarrollo de este convenio.

- Cualquier gasto vinculado o no con el proyecto aprobado, que haya sido contraído fuera del plazo de ejecución del proyecto o

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

aurkezteko epea igaro ondoren ordaindutakoa.	pagado después del plazo para la presentación de la justificación.
• Erakunde onuraduneko langileek edo bazkideek helburuak lortzeko jasotzen dituzten pizgarriak eta plusak.	• Los incentivos y pluses ligados a la consecución de objetivos percibidos por los trabajadores de la entidad beneficiaria o sus socios.
• Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.	• Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.
• Banku-kontuen interes zordunak eta bestelako interesak.	• Los intereses deudores de las cuentas bancarias y otros intereses.
• Errekargu eta zehapen administratibo eta penalak, isunak, tasak, tributuak eta prozedura judizialen gastuak. • Bermeak edo abalak eratzearen ondoriozko gastuak.	• Los recargos y sanciones administrativas y penales, multas, tasas, tributos y gastos de procedimientos judiciales • Los gastos derivados de la constitución de garantías o avales.
4 Diruz lagundutako gastuen eskuratze-kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gainditukо.	4 El coste de adquisición de los gastos subvencionables no podrá ser, en ningún caso, superior al valor del mercado.
5 Proiektuan diharduten langileen orduko kostua kalkulatzeko, soldata-kostuak hartuko dira kontuan, soldata	5 Para el cálculo del coste horario del personal dedicado al proyecto, se realizará en base a los costes salariales, estando incluidos tanto

CECOBI, 34/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

gordina zein enpresaren kargurako kostu sozialak barne.

Hona hemen orduko kostua kalkulatzeko formula, proiektuan parte hartzen duen pertsona bakoitzarentzat:

$$\text{Coste Hora} = \frac{(X + Y)}{H}$$

Edukia, balio bakoitzerako, honako hau izango da:

- X = Pertsona fisikoari ekitaldian ordaindutako ordainsariak, PFEZaren 190 ereduan edo dokumentu baliokidean adierazitakoaren arabera. Langilearen urteko soldata gordina edo soldata-kostua, Gizarte Segurantzako kotizazioak barne.

- Y = Ugazabak langile horrengatik Gizarte Segurantzari ordaindutako urteko kuota, kotizazio-oinarriaren arabera kalkulatuta (TC2 ereduetan edo dokumentu baliokidean adierazita, behar bezala identifikatuta), erakunde onuradunak Gizarte Segurantzari langile horrengatik egindako ekarpenaren amaierako koefizientearekin biderkatuta.

el salario bruto como los costes sociales a cargo de la empresa.

La fórmula de cálculo del coste-hora, para cada persona participante en el proyecto, será la que se expresa a continuación:

$$\text{Coste Hora} = \frac{(X + Y)}{H}$$

Siendo el contenido, para cada valor, el siguiente:

- X = Retribuciones satisfechas a la persona en el ejercicio, de acuerdo con lo declarado en el modelo 190 del IRPF, o documento equivalente. Salario bruto o coste salarial anual del trabajador incluidas las cotizaciones a la Seguridad Social.

- Y = Cuota patronal anual satisfecha a la Seguridad Social por ese empleado, calculada atendiendo a la Base de Cotización (expresada en los modelos TC2, o documento equivalente, debidamente identificada) multiplicada por el coeficiente final resultante de la aportación de la entidad beneficiaria a la Seguridad Social por ese empleado.

CECOBI, 35/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

- H = Langilearen urteko orduak, erakunde onuradunari aplikatu beharreko hitzarmenaren arabera.

Hitzarmen honen esparruan gehienez ordain daitekeen orduko kostua 55 € izango da, langile bakoitzak adostutako baldintzak gorabehera.

- H = Horas anuales del empleado, según el Convenio de aplicación a la entidad beneficiaria.

El coste horario máximo admisible a costear en el marco de este convenio, independientemente de las condiciones que tenga acordada cada trabajadora o trabajador será de 55 €.

6 Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen ez baditu (15.000,00 € + BEZa), gutxienez hiru eskaintza —hornitzaile ezberdinenak— eskatu beharko ditu Bizkaiko Merkataritzako Enpresa Konfederazioak (CECOBI), aldez aurretik, non eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez den aski erakunde haiek egin, eman edo entregatzeko, edo non eta dirulaguntzaren aurretik ez den egin gastua.

6 Cuando el importe del gasto subvencionable no supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, para el contrato menor (15.000,00 € + IVA), la Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia (CECOBI) deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención.

Eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da eskaintzen artean, eta berariaz

La elección entre las ofertas presentadas deberá aportarse en la justificación, o, en su caso, en la

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

solicitud de subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

7 Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerari emandako zenbatekoaren % 100 azpikontratatu ahal izango du, gehienez ere, osorik nahiz partzialki. Halaber, kontratazioak dirulaguntzaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, dirulaguntza ematen duen erakundeak aldez aurretik baimendu beharko du kontratazioa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Halako kasuetan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuordeak emango du baimena diruz lagundutako jarduera xede duten kontratu horiek egiteko.

7 La entidad beneficiaria podrá subcontratar, total o parcialmente, la actividad en un máximo del 100% del importe de la actividad subvencionada. Asimismo, cuando la contratación exceda del 20% de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la contratación deberá autorizarse previamente por la entidad concedente de la subvención, tal y como se indica en el artículo 29 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre. En estos casos, será el o la Viceconsejero/a de Turismo, Comercio y Consumo quien concederá la autorización para la celebración de estos contratos que tengan por objeto la actividad subvencionada.

8 Aurreko ataletan aurreikusten ez den guztirako, honako arau hauetan ezarritakoa bete beharko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. eta 31. artikuluak eta lege horren

8 En todo lo no previsto en los apartados anteriores, se estará a lo dispuesto en los artículos 29 y 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el artículo 83

CECOBI, 37/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

erregelamenduko 83. artikulua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsi zuen aipatu erregelamendua).

del reglamento de la citada ley, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio

11. ZERGA-BETEBEHARRAK, GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK ETA DIRULAGUNTZAK ITZULTZEAGATIKOAK

11 OBLIGACIONES TRIBUTARIAS, CON LA SEGURIDAD SOCIAL Y POR REINTEGRO DE SUBVENCIONES

Erakunde onuradunak egunean izan behar ditu Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bat etorriz uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak 18. artikulutik 26. artikulura ezarritakoarekin (dekretu horren bidez onetsi zen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua).

Es requisito de la entidad beneficiaria hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias con Hacienda y frente a la Seguridad Social, en los términos recogidos desde el artículo 18 al 26 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du ea erakundeak egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntza emateko unean, bai ordainketak egiteko unean eta bai dirulaguntzaren likidazioa egiteko unean, berau justifikatu ondoren.

La acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, se verificará automáticamente, por el órgano gestor, en el momento de la concesión de la subvención, la realización de pagos y de la liquidación de la subvención concedida tras la justificación de la misma.

Erakundeak berariaz ezezkoa ematen

Si se deniega expresamente la

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

badio organo kudeatzaileak egiaztapen automatikoa egiteari, ziurtagiri horiek aurkeztu beharko ditu.

verificación automática por el órgano gestor, se deberán aportar dichas acreditaciones.

12. EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN ZABALKUNDEA

Erakunde onuradunak honako betebehar hauek izango ditu emandako dirulaguntzaren zabalkundeari dagokionez:

12 DIFUSIÓN DE LA SUBVENCIÓN CONCEDIDA

La entidad beneficiaria tiene las siguientes obligaciones sobre la difusión de la subvención concedida:

a) Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak (CECOBI) argi eta garbi adieraziko du hitzarmen honi finantza-kapitala ekartzen dioten erakundeen babesa, egindako jakinarazpenetan edo proiektuaren aurkezpen publikoetan, eta baita hitzarmen hau sinatu duten erakundeen berariazko laguntza ere. Horretarako, irudi korporatiboaren anagramak eta logotipoak nahiz programaren berariazko irudiak sartuko ditu, formatu bakoitzerako modurik egokienean, bai proiektuaren dokumentazioan, bai atari edo webgunean. Dagokion atariaren edo webgunearen bidez programa zabaldu eta haren ekintzen berri eman beharko dute, baita, hala badagokio, jarraipen-batzordeak ezarritako hedabide osagarrien bitartez ere.

a) La Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia (CECOBI) hará constar de forma expresa y clara el patrocinio de las entidades que aporten capital financiero a este Convenio en sus comunicaciones o presentaciones públicas del proyecto, así como la colaboración expresa de las entidades firmantes al mismo, con inclusión de los anagramas y logotipos de la imagen corporativa y de los específicos del programa, en la forma más idónea a cada formato, tanto en la documentación del proyecto como en su portal o página web. Deberán difundir el programa e informar sobre las acciones a través del respectivo portal o página web y, en su caso, por los medios de difusión complementarios que establezca la comisión de seguimiento.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

b) Lege hauetan ezarritakoa bete beharko dute: martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta berdintasunaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia.

Zehazki, hauek onartzen dituzte: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3. artikuluan xedatutakoa, Legea betetzeko konpromisoari dagokionez, sektore publikoaren laguntzaren onuradun den erakundea izanik; berdintasunaren arloko printzipio orokorrei buruzko 3. artikuluan xedatutakoa; estatistika eta azterlanei buruzko 16. artikuluan xedatutakoa; hizkuntzaren eta edozein euskarritako irudien erabilera ez-sexistari buruzko 18.4 artikuluan xedatutakoa; eta euren zuzendaritza eta kide anitzeko organoetan ahalmen, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari buruzko 23. artikuluan xedatutakoa.

c) Diruz lagundutako jarduera burutzearekin zerikusia duten

b) Cumplirán lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres; y en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres y demás normativa vigente aplicable en materia de igualdad.

En particular, asumen lo dispuesto en el artículo 2.3. de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, respecto de su compromiso con el cumplimiento de la Ley, como entidad beneficiaria de apoyo del sector público; en el artículo 3, relativo a los principios generales en materia de igualdad; en el artículo 16, sobre estadísticas y estudios; en el artículo 18.4, sobre uso no sexista del lenguaje y de imágenes en cualquier soporte; y el artículo 23 relativo a la presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacidad, competencia y preparación adecuada en sus órganos directivos y colegiados.

c) Utilizar las dos lenguas oficiales en las acciones relacionadas con la

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

ekintzetan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoari bideratuak direnean. Era berean, pertsona fisiko eta juridikoek dirulaguntzaren onuradun den erakundearekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da.

ejecución de la actividad subvencionada, cuando vayan destinadas a la Comunidad Autónoma Vasca. Al mismo tiempo, se garantizará el derecho que tienen las personas físicas y jurídicas en sus relaciones con la entidad beneficiaria de la subvención a utilizar tanto el euskera como el castellano.

13. EZ-BETETZEA ETA ITZULKETAK

Elkarteak ez baditu betetzen hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritakoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten du dekretu horrek), betebeharra ez dela bete adierazten duen espedientea aurkeztu ondoren, emandako dirulaguntzaren zati bat edo dirulaguntza osoa baliogabetuko da, eta jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onetsi

13 INCUMPLIMIENTO Y REINTEGROS.

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente Convenio, así como de las consignadas en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el artículo 50.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, dará lugar, previo expediente de incumplimiento, a la cancelación parcial o total de la subvención otorgada, con la obligación de reintegro de las cantidades percibidas a la Tesorería General del País Vasco, en los términos establecidos en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el artículo 53 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

zuen testu hori), eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duena.

Alderdi sinatzaileetako edozeinek hitzarmen honen klausulak ez betetzeak berau indargabetzea ekarri ahal izango du, betiere Batzordeko kide gehienek horrela adieraziz gero, eta horrelakoetan alderdi ez-betetzailea kanporatzeko aukera egongo da.

y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El incumplimiento de las cláusulas del presente Convenio por cualquiera de las partes firmantes podrá dar lugar a la resolución del mismo si así lo expresa la mayoría de los miembros de la Comisión, y podrá producir la exclusión, en este caso, de la parte incumplidora.

14. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau-hausteak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56., 57. eta 58. artikuluetan ezarritako betebeharren ez-betetzeak. Aipatutako artikuluetan tipifikatutako arau-hausteren bat gertatuz gero, arau-haustearen larritasunaren araberako zehapena ezarriko da, bat etorriz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 61., 62. eta 63. artikuluekin.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, EONALTBren VII. tituluko III. kapituluan xedatutakoa ere hartuko da kontuan.

14 INFRACCIONES Y SANCIONES

Constituyen infracciones los incumplimientos de las obligaciones recogidas en los artículos 56, 57 y 58 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Si concurriera alguna de las infracciones tipificadas en los artículos anteriormente mencionadas, se sancionará en consonancia con la gravedad de la infracción de acuerdo con los artículos 63, 62 y 63 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

En materia de infracciones y sanciones, se atenderá también a lo dispuesto en el Capítulo III del Título VII del TRLPOHGPV.

CECOBI, 42/95

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa | Confederación Empresarial de Comercio de Bizkaia

15. ALDAKETAK

Lankidetza-hitzarmen honen klausuletan, estipulazioetan edo baldintzetan edozein aldaketa egiteko Jarraipen Batzordearen berariazko oniritzia beharko da. Aldaketa-klausula bat idatziko da horretarako, espedienteari erantsiko zaiona.

Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, edo beste edozein administraziotatik edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, dirulaguntza gehiago lortzen bada, edo bestelako diru-sarrerak badaude helburu bera lortzeko, dirulaguntza emateko erabakia alda daiteke, betiere onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

Jarduerak gauzatzeko garaian, aurrekontuan hasiera batean zehaztutako zenbatekoak aldatu eta egokitu ahal izango dira jardueren artean, gorantz edo beherantz, baina orotara ez dute inola ere gainditu hitzarmenean ezarritako zenbateko osoa, betiere Jarraipen

15 MODIFICACIONES

Cualquier modificación que se produzca en las cláusulas, estipulaciones o condiciones del presente convenio de colaboración deberá de realizarse con el acuerdo expreso de la Comisión de Seguimiento, redactándose una adenda como cláusula modificativa que se incorporará al expediente.

Asimismo, la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados y, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos para ser beneficiario de la ayuda.

En la ejecución de las actividades, los importes presupuestados inicialmente en el proyecto pueden ser objeto de modificación y ajuste entre las distintas actividades, al alza o a la baja, sin superar en su conjunto, en ningún caso, el importe global del Convenio establecido, siempre que la Comisión de

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

cecobi
